

Informazio orokorra

- Zer da Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionala (ELSN)?
- Zer da Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalaren on line katalogoa?
- Zenbat liburutegi daude ELSNren on line katalogoan?
- Egin daitezke kontsulta bateratuak bertan dauden liburutegi guztien katalogoetan?
- Liburutegi-txartel berarekin sar naiteke ELSNren on line katalogoan dauden liburutegi guztien mailegu-zerbitzuan?
- Nola eska dezaket ELSNko liburutegietan sartzeko erabiltzaile-txartel bakarra?
- Zer eskaintzen dit ELSNk, etxetik Interneten bidez konektatzen banaiz?

Zer da Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionala (ELSN)?

Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionala 1990ean sortu zen (7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa) eta Euskadiko udal liburutegi guztiez osatua dago.

Zer da Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalaren on line katalogoa?

On-line sarean parte hartzen duten EAeko udal liburutegietako funtsak biltzen dituen datu-base bat da. On line katalogo (OPAC) honi esker posible da web bidez eta elebizi parte hartzen duten liburutegi guztietako funtsetan kontsultak egitea, bai eta erabiltzaile-txartel bakarra edukitzea zentro guztietarako balioduna.

Aukera ematen du, gainera, jakiteko aleak non dauden, eskuragarri dauden, irakurleen batek hartuak dituen eta noiz itzultzekoak diren ere. Interneti konektatutako edozein ordenagailutatik egin daitezke kontsulta.

Beraz, OPAC liburutegi-sarean sartzeko-tresna da, honako zerbitzuak ematen dituen aplikazioa alegia:

- Liburutegi-sareko funtsak kontsultatzea
- Ezagutzea egile baten, gai jakin baten, euskarri zehatz baten edo edonolako irizpidearen arabera izenburuak
- Aurkitzea dokumentuak, dagokion liburutegian
- Irakurleari bere bilaketan laguntzea, lotura edo erreferentzia bidez
- Denbora errealean dokumentuen nondik norakoa jakitea (eskuragarri edo maileguan hartuta dauden eta abar), eta gainera:
 - iradokizunak eta erosketa-proposamenak egin ahal izatea,
 - katalogoan sartu berri diren azken izenburu interesgarriak egiaztatzea,
 - bere bibliografia propioak sortzea,
 - fitxa pertsonala kontsultatzea eta
 - transakzioak egitea (maileguak berritu eta dokumentuen erreserba egin)
- Kanpoko informazio-guneekin lotzea (beste katalogo batzuk, datu-baseak eta hainbat informazio-sistema)



Zenbat liburutegi daude ELSNren on line katalogoan?

Gaur egun EAEko hiru lurraldeetako 168 udalerriren menpeko 209 liburutegietako funtsak kontsulta daitezke.

Egin daitezke kontsulta bateratuak bertan dauden liburutegi guztien katalogoetan?

Bai. Bertako 209 liburutegietako funtsetan batera kontsulta bat egiteko, helbide honetara jo behar da: <http://www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua>. Funts horiek bi milioi aletik gora jasotzen dituzte. Horrekin batera, OPACi esker liburutegi jakin bateko funtsean bilaketa banakakoak egin daitezke.

Liburutegi-txartel berarekin sar naiteke ELSNren on line katalogoan dauden liburutegi guztien mailegu-zerbitzuan?

Jakina. Proiektuaren helburua da, azken batean, herritarren eskura jartzea ELSN on line katalogoan sartuta dauden liburutegietako funts eta zerbitzuak. Erantsitako balio gisa, gainera, Sareko liburutegi batzuek IZENPE ziurtagiria ematen dute, ohiko irakurle-txartelaren ordez.

Nola eska dezaket ELSNren erabiltzaile-txartel bakarra?

1. Parte hartzen duten liburutegietako batean bazkide bazara, aski duzu txartel zaharra berritzea.
2. Bazkidea ez bazara, eta izan nahi baduzu, jo ezazu liburutegi parte-hartzaileetako edozeinetara eta bertako langileek azalduko dizute zer egin behar duzun.

Txartel zaharra berritzen duzunean, edo berria egiten duzunean, pasahitz bat eskuratuko duzu Internet bidez OPACen eragiketak egiteko.

Zer eskaintzen dit ELSNk, etxetik Interneten bidez konektatzen banaiz?

OPACen web helbidean konektatzen bazara, liburutegi parte-hartzaileen katalogoak kontsultatu ahalko dituzu, zure maileguak nola daude ikusi, haiek berri, eta aleak eskatu edo erreserbatu. Gainera, liburutegiari zure iradokizunak eta erosketa-proposamenak -desiderata izenekoak- helaraz diezazkiokezu. Horretaz gainera, interesatzen zaizkizun gaien inguruko bibliografiak sor ditzakezu edo gustuko web-loturen zerrendak egin.